

EURI XORTA

Anize Amestoy-Paroix, 12 urte
Hazparne

Euria ari du, dena du bustitzen,
Aterbean ari naiz idazten.
Euria maite dut barnean naizelarik,
Ikusten baitut kanpoko guzia busturik.

Euri xorta bat ikusi dut erortzen,
Bere lagunekin batera jausten;
Hunki gabe lurra,
Hosto baten gainetik isuriz putzura.

Zorionez hiriko urek ez dute harrapatu,
Inguru horiek hain dira arriskutsu!
Putzutik eta ubideetarik erre kara,
Errekatik zirurika ibaira.

Ibai zabal lasaian euri tantak eginik lagunak,
Itsasora doaz denak;
Han ezin konda ahala lagun egiten dituztela...
Denek amets egiten dute horrela.

Egun batez eguzki bortitza agertu
Eta ibai guzia bat-batean du berotu,
Orduan euri xorta da lurrin bilakatu
Eta bere lagunekin hodeietan elkartu!